

Arratiako Tranbiari buruzko erakusketaren bosgarren geldialdia Areatzan

*Irailaren 18an, ostiralean, arratsaldeko 19:30ean egingo da inaugurazio
ekitaldia*

Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik erakusketa ikusgai egongo da Areatzan irailaren 18tik 27ra, herriko ludotekan. Erakusketa ibiltari honek Zeanurin hasi zuen bere ibilbidea urtarilaren 30ean, eta hurrengo geldialdiak Igorren, Azpeitiako Burnibidearen Euskal Museoan, Lemoan eta Galdakaon egin ditu.

Irailaren 18an, ostiralean, bosgarren geldialdia egingo du Areatzan. Inaugurazio ekitaldia arratsaldeko 19:30ean izango da eta bertan, Jon Urutxurtu — erakusketaren komisarioak — aurkezpena egingo du; ondoren, Juanjo Olaizolak — Burnibidearen Euskal Museoko zuzendariak — Arratiako Tranbiaren historiari eta garrantziari buruz hitz egingo du.

150 argazkik, zinema irudiek (Julian Elejoste, Felipe Manterola eta NODOren grabazioek), prentsa albisteek, grafikoek, tranbiako txartelek eta maketek osatzen dute erakusketa.

Ehun urtetik gora igaro dira, gehienbat Arratiako tranbia izenaz ezagutzen den Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa jaio zenetik; eta 2014ko azaroaren 30ean bere heriotzaren 50. urteurrena bete zen. Urteurrena aitzakiatzat hartuz, eta garraiobide zahar haren gorabeherak ezagutzera emateko asmoz, Zertu Kultur Elkartek, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaz, *Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik* erakusketa ibiltaria antolatu du.

Areatzako egonaldia amaitu ondoren, erakusketak hurrengo eta azken geldialdia Bilbon, Bizkaiko Foru Liburutegian egingo du; hemen urriaren erditik abendura izango da ikusgai.



Tanbia Areatza zeharkatzen

Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren historia arakatzek XIX. mendearen amaierara salto egitea suposatzen du, 1898an Fomento Ministeritzak lurrun-tranbiaren kontzesioa Angel Iturraldei eman zion unera hain zuzen ere. Dena dela, tranbia haiek inoiz ere ez ziren ibili lurrun-makinak mugituta, eta 1899ko irailaren 2an, Lemoa-Artea tartearen behin-behineko inaugurazioa burutu zenean, lehen tranbiak animalia-trakzioaren bidez zebiltzan.



*Kosme Berasategi
zornotzarra, tranbiako
kobratzailea. 1910*



Tranbia Zeanurin. Bere zain Gasteizerako autobusa.

Inaugurazioarekin batera, Automóvil Vitoriana konpainiak, Barazar mendatetik igaroz, Areatza eta Gasteiz lotzen zituen autobus-zerbitzua jarri zuen martxan.

1902ko uztailaren 5ean, goizeko bederatzietan, probak egiteko lehenengo tranbia elektrikoa Durangora iritsi zen, suziriek eta hiribilduko biztanleen ikusmenak harrera egiten zioten bitartean; aste batzuk beranduago, Lemoa-Zeanuri tartean trakzio elektrikoa zuen zerbitzua hasi zenez gero, animalia-trakziodun tranbiak kendu egin ziren. Azkenik, egun handia heldu zen, eta 1902ko abenduaren 7an, igandea, Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren behin betiko inaugurazioa burutu zen.

Amorebieta-Etxano, Durango eta Arratiako herriak euren artean eta Bilborekin harremanetan jartzen zituen garraiabide hura, Arriaga Antzokiko plazatik ateratzen zen eta Erribera kaletik igaroz, San Anton zubitik Nerbioi

ibaia zeharkatzen zuen. Behin ezkerreko urbaztarrean, Urazurrutiako kaiaetatik jarraitzen zuen Abusura zuzentzeko; auzo honetan Nerbioi ibaia bigarren aldiz zeharkatzen zuen hormigoizko bidezubi dotore batetik. Abusutik Boluetara jotzen zuen, eta hemen “Puente Nuevo” izenaz ezaguna zen zubitik hirugarren aldiz zeharkatzen zuen ibaia, gero, tunel bati esker Basauriko Pozokoetxe auzora iristeko. Basaurira helduta, lantegi siderurgiko garrantzitsua zen Basconiaren ondotik pasatzen zen. Azbarren, Ariz eta Urbi atzean utziz, Galdakora ailegatu orduko Laminarrietako saihesbidetik jarraitzen zuen, Gallo, Usansolo eta Bedia igaro ondoren Lemora heltzeko. Herri hau tranbiaren gunerik garrantzitsuenaren zen, bertan linea bitan adarkatzen baitzen: Durangorantz edo Zeanurirantz. Lemoan kokatu ziren ere kotxetegiak eta tailer nagusiak.

Tranbiabideraren luzera guztira 49,21 kilometrokoa zen; horietatik 20 Bilbo (Arriaga) eta Lemoako tarteari zegozkion; Lemoatik Durangorako lineak 14,6 kilometro zituen, eta antzerako luzera zuen Lemoatik Zeanurirako tarreak.

Bidaiaren eta merkantzien garraioa

Bere bizitzako lehen urteetan lehia zorrotza izan zuen Bilbotik Durangorako trenbide estua ustiatzen zuen Konpainia Zentralarekin, baina 1911ko ekainaren 12an, Ferrocarriles Vascongadosen Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektroaren akzio guztiak erosi zituenean amaiera eman zitzaion bi enpresen arteko borrokari. Hurrengo urteetan tranbien hobetzeari ekin zioten jabe berriek: azpiegiturak berriztatu egin ziren. Bidaiarentzako bagoien kanpo

dekorazioa —ordura arte egur barnizatutakoa zen— aldatu eta hori kolorez margotu zuten, eta bidaiariaren eta merkantzien trafikoa gora

egin zuen, horrela, 1929an, 4.196.460 pertsona eta 89.287 tona merkantzia garraitu zituen. Kontuan izan behar da linean zenbait lantegira sartzeko bazterbideak zeudela: Barbier-era, Abusun; Santa Anara, Boluetan; Basconiara, Basaurin; Firestonera, Urbin; Cementos Lemonara, eta La Flechara, Lemoan, Astepeko lantegietara, Amorebietan....



Lemoan ibilbidea banatu egiten zen Zeanurirantz edo Amorebieta eta Durangorantz.

industrializazioa azpimarratu behar dira.

1950eko martxoaren 27an, Lemoa eta Amorebieta lotzen zituen tartea itxi bazen ere, 1952an Arratiako tranbiak diru-sarrerari zein bidaiari trafikoi zegokionez, bere gorengo emaitzak lortu zituen, urte hartan guztira 6.749.914 pertsona garraiatu zituelarik. Merkantziek, oster, errepidetik garraiatzeko zerbitzuak ugaritzen ziren heinean, beherantzako joera erakusten zuten. Hasieran, 1953ko zenbakiek aurreko



Merkantziak kargatu eta deskargatzen zituen tranbiak Arriagako kaian

Bere 60 urtetik gorako historian tranbiabidearen errailek tarte baten baino gehiagotan ebaketak jasan zituzten. Horrela, gerra zibilarekin Amorebieta-Durango tarteko zerbitzua eten egin zen, eta gerra amaitu ondoren, konponketarik ez zen egin; alde batetik, kalteak handiak zirelako eta bestetik, Ferrocarriles Vascongados Konpainiak zati hori eusteko interesik ez zuelako, trenbidearen zerbitzuarekin nahikoa zela uste baitzuen. Gainera, aldi berean Bilboko terminala Arriagako plazatik, antzokiaren atzeko aldera lekualdatu zen. Sasoi honetan, trafikoa, batez ere bidaiariena, etengabe hazi zen, aurreko aldiko zenbakia

nabarmen gainditu zirelarik; hazkunde horren zergatien artean, estraperloa eta Ariz-Urbi-Galdako aldean gero eta handiagoa zen



Tranbia, uholdeen erdian, Urazurrutiako kaian.

urteko joera azaltzen bazuten ere, urriaren 15eko uholde izugarriek Urbin, Nerbioi ibaiaren gaineko zubi metalikoa eraman zuten eta 1954ko otsailaren 24ra arte zerbitzua ez zen berrezarri. Gainera, Bilboko Urazurrutiako kaietan ibaiertzeko hormaren zati handia hondatu egin zen, eta egoera hau aprobetxatuz, hiriburuko udalak Arriagako plazarako sarbidea kendu zuen, eta aurrerantzean tranbiak Barandiarango kaietan hasi behar izan zuen zerbitzua.

Iragarritako heriotza

Hemendik aurrera, Arratiako tranbia hil zorian sartu zen. Alde batetik, bidaiariak etengabe galduz zihuan eta bestetik, bere egoera ekonomikoa gero eta larriago zen. Horrez gainera, lineak zeharkatzen zituen errepideetan zirkulazioa apurka-apurka gehitu egin zen, eta tranbia eta automobilen arteko bizikidetzak txarrera egin zuen, tranbia oztopotzat jotzen hasi zirelarik. Testuinguru horretan, 1956ko abuztuaren 1ean ibilbideak anputazio larria jasan zuen, Galdakao (Plazakoetxe)-Lemoa tartea kendu baitzuten; ondorioz linea beraien artean loturarik gabeko bi tartetan zatituta geratu zen: Bilbao (Urazurrutia)-Galdakao, 10 kilometrokoa, eta Lemoa-Zeanuri, 15 kilometrokoa. Bi urte beranduago, 1958ko urriaren 1ean Urbi (Firestone)-Galdakoa (Plazakoetxe) tartea eta Zeanuriko erdigunerako sarbidea kendu zituzten. Itxiera horiek merkantzien garraioa ia erabat desagertzea eta bidaiariena etengabe jaistea ekarri zuten.

Argi zegoen, 1962ko abenduaren 5ean, Arratiako tranbiarako administrazioaren kontzesioak balioa galdu zuen egunean, zerbitzua bertan behera utziko zutela. Hala ere, ordezkio autobus-lineak ezartzeko administrazioaren baimenak ez ziren iritsi, eta tranbia zaharrek 1964ko azarora arte lanean jarraitu zuten.

Mendizaleen agurra

1964ko azaroaren 29an, igandea, ospakizun eta jai giroan, mendizaleek agur esan zioten tranbiari. Arratiako garraiogailua omendu gurean, tranbia bi alokatu zituzten; goizeko bederatzietan Lemoatik abiatuz, Igorre eta Areatzan gelditu ondoren, hamabi eta erdiak inguruan Zeanurira heldu ziren.

Herri honetan bazkaldu eta txistu eta tanborilaren soinuaz dantzatu ondoren, berriro Bilborantz bueltatu ziren, Lemoan trena hartuz.

Azken unera arte biziraun zuten bi tarteen itxierarekin — Bilbo-Urbi eta Lemoa-Zeanuri— 1964ko azaroaren 30ean, Arratiako tranbia behin betirako desagertu zen. Tranbia bat Miguel Atutxa arantzazutarrak erosi zuen Igorreko Garbe auzoan zeukan Hostal Aránzazuren aurrean



Arratiako tranbia agurtzen Areatzako kaleetan

jartzeko. Hamar zenbakiduna zen, alde batean “Ceanuri” eta bestean “Bilbao” karteltxoak zeramatzana. 1966ko otsailaren 6an, igandean, gomazko gorpilen gainean eta lau mandok tiratuta egin zuen Lemoatik Garberainoko bidea, txistulari, trikitilari eta albokariaren doinu eta jendearen txalo eta ohien artean. Gertaera hori garai hartan hain ospetsua zen NODO albistegirako filmatu zuten. Zoritzarrez, denbora gutxi iraun zuen bertan, eurite batzuen ondorioz Arratia ibaiak aurrean eraman baitzuen.

ARRRATIAKO TRANBIARI BURUKO ERAKUSKETA

TOKIA: Areatzako ludotekan

Horario: astelehenetik ostiralera: 17:00etatik 19:30era

Zapatuetan eta domeketan: 11:00etatik 13:00etara

BILBOTIK DURANGO ETA ARRATIAKAKO TRANBIA ELEKTRIKOAREN KRONOLOGIA

- * **1898ko abuztuaren 3an:** Bilbotik Durango eta Arratiarako lurren-tranbiaren kontzesiorako enkantearen iragarpena argitaratzen du Estatuko Aldizkari Ofizialak.
- * **1898ko azaroaren 16an:** Bilbo, Durango eta Zeanuri artean ibiliko den tranbiaren kontzesioa Ángel de Iturrালের eskuetan geratzen dela ezagutzera ematen duen Errege Agindua argitaratzen da.
- * **1899ko urtarrilaren 9an:** Tranvía Eléctrico Bilbao a Durango y Arratia (TBDA) konpainia sortu zen.
- * **1899ko martxoaren 11n:** Tranbiaren lanak inauguratzeko ekitaldia egin zen Areatzan.
- * **1899ko irailaren 2an:** Tranbiaren behin-behineko inaugurazioa, animalia-trakzioaren bidez, Lemoa-Artea bitartean. Aldi berean, Gasteizerako autobus-zerbitzu konbinatua martxan jarri zen.
- * **1900eko otsailaren 22an:** Erreal Ordenaren bidez Bilbotik Durango eta Arratiara tranbia elektrifikatzeko baimena eman zen.
- * **1901eko ekainean:** Enpresak lehenengo tranbia elektrikoak jaso zituen.
- * **1902ko uztailaren 5ean:** Probak egiteko lehenengo tranbia Durangora iristen da
- * **1902ko abuztuaren 1ean:** Lemoa-Zeanuri tartean argindarrak mugituko tranbien zerbitzua hasi zen.
- * **1902ko urriaren 15ean:** Abusuko zubiaren proba ofizialak. Sasoi hartan estatu mailan zegoen hormigoi armatuzko handiena zen.
- * **1902ko abenduaren 7an:** Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren behin betiko inaugurazioa.
- * **1911ko ekainaren 12an:** Ferrocarriles Vascongados Konpainiak Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren akzioak erosi zituen.
- * **1937ko maiatzean:** Amorebieta-Durango tarteko zerbitzua eten egin zen.
- * **1938ko azaroaren 30ean:** Amorebieta-Durango tarteko bideak eta elektrifikazioa kentzen hasten dira.
- * **1950eko martxoaren 27an:** Lemoa-Amorebieta tarteko zerbitzua itxi egin zen.
- * **1953ko urriaren 15ean:** Uholdeen ondorioz, Bilbo-Lemoa tarteko zerbitzua gelditu egin zen. Harrezkero, tranbiak ez ziran Arriaga Antzokiaren plazaraino heltzen.
- * **1953ko urriaren 19an:** Lemoa-Urbi tarteko zerbitzua berriz jarri zen martxan.
- * **1954ko otsailaren 24an:** Bilbo(Urazurrutia)- Zeanuri tartean guztiz berrezarri zen zerbitzua.
- * **1956ko abuztuaren 1ean:** Galdakao(Plazakoetxe)-Lemoa tarte itxi egin zen.
- * **1958ko urriaren 1ean:** Urbi-Galdakao (Plazakoetxe) tarte itxi egin zen.
- * **1964ko azaroaren 2an:** Zeanuri-Lemoa-Bilbo eta Urbi-Bilbo autobus lineak zabaldu ziren.
- * **1964ko azaroaren 29an:** Arratiako tranbiaren azken bidaia eta agurreko jaialdia.
- * **1964ko azaroaren 30ean:** Lemoa-Zeanuri eta Bilbao-Urbi tarteak behin betiko itxi egin ziren. Arratiako tranbia desagertu egin zen.



Arratiako tranbia Arriaga Antzokiaren plazako geltokian